

XVI. eta XVII. mendeetako Euskal Herriko kristautze- prozesua aztertu du Ana Zabalgak

Euskal herritarrak
kleroarengandik oso hurbil
zeuden: parrokia beti zegoen
hurbil, eta apaizak bere
eliztarrak ezagut zitzakeen
zuzenean, haiek ere bertakoak
baitziren

2005 Mai 5

Iruñako Ana Zabalzak bere doktorego-tesia defendatu zuen 1992an; tesia XVI. mendetik XVIII. mendera bitarteko Nafarroako herri-ondasunei buruzkoa zen. Renon (EEBB) XVI. eta XVII. mendeetako Euskal Herriko kristautze-prozesua aztertu duela jakin dugu.

Noiz izan zen lehenengo kristautzea? Zer esan nahi da XVI. eta XVII. mendeetako kristautzearekin?

Kristautasuna beste egile batzuek ikertu duten garai goiztiar batean zabaldu zen euskal lurraldeetan. Hala ere, nik ikertzen dudan garai historikoa Aro Modernoa da, hau da, XVI. mendetik XVIII. mendera, gutxi gorabehera. Zalantzarik gabe, Eliza Katolikoaren ikuspuntutik gertaera nabarmenenetako bat Trentoko Kontzilioa izan zen: 1563an amaitu zen, eta dotrina katolikoa zehaztu

zuen, eta bereziki Lutherek eraso
zituen puntuak.

Hala eta guztiz ere, banantze
protestantea kontuan hartu gabe,
Elizan aspalditik sentitzen zen
Erreforma gauzatu beharra; nahi
hori oso nabarmena zen euskal
lurraldeak barne hartzen zituen
Monarkia Hispanikoko lurraldeetan.
Egia esan, Erreforma katolikoa
banantze protestantea gertatu
aurretik hasi zen nolabait. Asmoak bi
ziren: garai hartan oso txarra zen
kleroaren prestakuntza hobetzea, eta
gotzainaren funtsezko figura
sendotzea. Kristautasunak euskal
herritarren artean izan zuen
arrakasta txikitik ondorioztatutako
arazo askoren jatorria zen: kleroaren
gaitasun urria eta elizbarrutietan
eginkizun pastoralak gauzatzeko
gotzainen falta ziren, beste lurralde
batzuetan gertatu zen bezala.

Trentoko dekretuek betebeharrak ezarri zituzten, gotzainaren bizilekuari buruzkoa kasu: gotzaina bere egoitzaren herrian bizi behar zen etengabe, eta parrokiak bisitatu behar zituen, eliztarrek dotrina ezagutzen zuten egiaztatzeko, adibidez. Halaber, Trentok apaizgaitegiak sortu beharra ezarri zuen, horietan kleroak beharrezko prestakuntza jaso zezan. Dena den, alde horrek oztopo batzuk zituen, eta esate baterako, Gipuzkoako zati handi bat hartzen zuen Iruñako elizbarrutian ez zen apaizgaitegirik sortu XVIII. mendera arte.

Hasteko, fedearen bizipen-maila nekez ezagutzen da edozein garai historikotan. Hala ere, zenbait elizbarrutitan ikerketa monografikoak egin dira, behintzat alde kuantifikagarrienak (esate baterako, kristau-ikasbidearen eta otoitz nagusien gaineko ezagutzamaila) ezagutzeko asmoz. Aipa

dezagun Sara Nalle historialari estatubatuarraren kasua: Trentoko dotrinak Cuencako elizbarrutian izan zuen eragina zehatz-mehatz ikertu du, eta Kontzilioaren ondoko hamarkadetan Cuencako biztanleen artean kristau-ikasbidearen gaineko ezagutza-maila nabarmen hobetu zela egiaztatu du.

Euskal Herriko prozesua eta penintsulako gainerako lurraldeetako bereizten dituen faktorerik al dago?

Beste lurralde batzuekin gertatzen den moduan, berezitasun batzuk daude, baita komuneko ezaugarri asko ere. Euskal Herriaren kasuan, bere kokapenak eragin handia izan zuen, zalantzarik gabe, agintaritzagune handietatik urruntzen zuen eta. Urrutiko herrialdea da, menditsua, eta Antzinako Erregimenaren baremoen arabera, txiroa. Nire iritziz, badago beste faktore

garrantzitsu bat: populaketa sakabanatua, hain zuzen ere. Horrek euskal herritarrek kleroarengandik oso hurbil egotea eragin zuen: parrokia beti zegoen hurbil, eta apaizak bere eliztarrek ezagut zitzakeen zuzenean. Bestalde, parrokoak –beste izen batzuk ere jasotzen dituztenak- herrikoak bertakoak ziren, eta horren ondorioz, herritarrekiko hurbiltasuna eta integrazioa oso handiak ziren. Parroko asko apaizgaitegian egon ez baziren ere, gotzainen bisiten eragina berehala hasi zen nabarmentzen.

Ezaugarri bereizle bat hizkuntza da, jakina. Esate baterako, Iruñako gotzainak, gehien bat euskalduna zen lurralde bateko artzainak zirenak, katiximak euskaraz prestatzeaz arduratu ziren. Euskaraz idatzitako sermoitegiak ere bazeuden: liburu horiek beste hizkuntza batzuetaz idatzitako

testuetan inspiratutako sermoiak zituzten, aldi liturgiko edo jai ezberdinetarako, eta herriko parrokoek sermoiak prestatzea ahalbidetzen zieten. Hala ere, jakina denez, gertaera pastoral hori eta Nafarroako erresumako lehengo lurraldea gaztelaniatzeko gogo politikoa aldi berean gertatu ziren. Batez ere Felipe II.a saiatu zen Iruñako elizbarrutiko mugak berriro zehazten, Frantziako subiranotasunaren mende geratzen ziren lurraldeak bananduz –horietan protestantismoa zabaldu zen eta-, eta Nafarroan zeuden erlijio-ordenek Aragoiri beharrean (unera arte egiten zuten moduan), Gaztelari men egiten saiatuz. Politika horren ondorioz, Iruñako gotzainak ez ziren nafarrak izan XVIII. mendera arte.

Zer ikas dezakegu kristautze horretatik, XXI. mendeko kristauoi denbora-ordena eratzen lagun diezagukeena?

Zaila da baliozko ondorioak ateratzea, egoerak oso ezberdinak dira eta. Eliza Katolikoa Trenton sendotu egin zen, Lutheren proposamenen aurrean dotrina corpus argiagoa eta apologetika irmoa zituela. Uste dut funtsezkoa izan zela gotzainaren figura sendotzea, ez baitzen lurralde administratzaile hutsa, bere herriko artzaina baizik. Horrek eta apaizen prestakuntzaren mailakako hobekuntzak (maila guztietan katekesi-lana eginda) fedearen bizipena aldatzea ekarri zuten epe laburrean. Aldi berean, fedearen benetako ereduak agertu ziren, eginkizun ezberdinak zituztenak: mistiko eta erreformatzaile garrantzitsuak, hala nola, Santa Teresa Jesusena eta San Joan Gurutzekoa; San Inazio

Loiolakoa, bere obra Erreforma Katolikoari estu lotuta dagoela eta espiritualtasun kristaua edozein

gizon edo emakumeren eskura jartzen duela; San Frantzisko Xabierkoa, misiolari ospetsua, eta beste hainbeste.

San Inazio Loiolakoaren espiritualtasunaren zeregina funtsezkoa da. Gizaki bakoitza bere egintzen arduraduna zela, eta betiereko epaileak azken egunean epaituko zuela (jardun espiritualak, kontzientzia-azterketa) adierazi zuen. Horrela, kontzientzia pertsonala edo gizabanakoaren nortasuna, Aro Modernoaren hasierara arte argi agertu ez zena, osatzen lagundu zuen, ziur aski konturatu gabe. Gizakia bitarteko erakunde batzuen (etxea, udalerria, ...) mende geratzen zen nolabait, eta adierazle batzuek –esate baterako, bizitza osoan izen propio bakarra eta egonkorra ez izatea– adierazten omen dute pertsona ez zela oso kontzeptu garatua, eskubide

eta betebeharren subjektua den
aldetik.

**Nola islatzen dira
euskalduntasunaren ezaugarriak
jainkozaletasunean –horrelakorik
esan badaiteke-?**

Euskal herritarrek sakon
berenganatu zuten Trentoko
espiritua. Lehen esan dudan bezala,
kleroarekiko hurbiltasun fisikoak eta
apaiza bat gehiago izateak,
norberaren hizkuntzaz mintzatzen
den norbait izateak, alegia, eragina
izan zuten. Halaber, katiximak
euskaraz prestatzeak ere fedearen
formulak ikasten lagundu zuen.
Kontuan hartu behar da –Carolina
Montorok orain dela gutxi egindako
ikerketa batean aztertu den bezala-
Euskal Herria Monarkia
Hispanikoaren barnean goizen eta
sakonen alfabetatu ziren guneetako
bat dela, gehienek hizkuntza ez-

erromaniko batez hitz egiten bazuten ere.

Zergatik joan zinen Renora prozesu hori ikasteko?

Nevadako Unibertsitateko (Reno) Eusko Ikaskuntzen Zentroak euskal gaiei buruzko munduko liburutegi garrantzitsuena du Euskal Herritik kanpo. Gainera, artxibo garrantzitsua du Historia Garaikideko gaiei buruz.

Udako egonaldiatarako beka programak gai horiek luzaroan eta giro egokian ikastea errazten du. Bestalde, liburutegia eta artxiboa erakunde biziak dira, fondo berriak gehitzen jarraitzen dutenak. Udako egonaldiak amaitzeko, ikertutako gaiak jendaurrean azaltzen dira, eta mesedegarriak dira munduko beste leku batzuetatik datozen euskal gaien beste ikertzaile batzuekin iritzi ezberdinak elkarri adierazteko.

.....

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/xvi-eta-xvii-mendeetako-
euskal-herriko-kristautze-prozesua-
aztertu-du-ana-zabalzak/](https://opusdei.org/eu-es/article/xvi-eta-xvii-mendeetako-euskal-herriko-kristautze-prozesua-aztertu-du-ana-zabalzak/) (2026 Mar 11)